

# HIZKUNTZA ALDAKORTASUN GEO-SOZIOLINGUISTIKOA ARRATIAN

**Tesiaren egilea:** Naia Eguskiza Sanchez

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila

**Tesi-zuzendaria:** Iñaki Gaminde eta Aintzane Etxebarria

**Tesiaren laburpena:**

Gauza jakina da hizkuntzak aldatzen datozena, eta aldakuntza horretan faktore ezberdinek daragite. Hizkuntza Sistema Konplexu Dinamiko Moldagarritzat ulertuta (SKDM), Arratian hizkuntzak dakarren aldakuntza aztertzea izan da doktoretza-tesi honen helbururik behinena. Hizkuntzaren aldakuntzaren mailetan maila diastratikoa (adina eta generoa) eta diatopikoa aztertu dira.

Beraz, Arratiako sei herritako (Lemoa, Igorre, Dima, Artea, Zeanuri eta Zeberio) belaunaldi biko andrazkoen eta gizezkoen euskara bildu, aztertu eta datuak elkarren artean konparatu dira, eremu geografiko horretan dagokeen bariazioa zelan gertatzen den jakiteko eta zeren arabera den argitzeko. Aldakortasuna sistematikoki aztertzeko eta lekuko guztiengan ezaugarri berdinak behatzeko, itzulpen eta interpretazio bidezko galdetegia diseinatu da. Galdetegian jaso eta aztertu diren ezaugarriok fonologiari, izen-morfologiari, aditz-morfologiari eta sintaxiari dagozkienak izan dira.

Datuak metodo kuantitatiboan bidez aztertu dira, eta horretarako, hiru motatako estatistikak erabili dira: deskribatzaileak, inferentzialak eta sailkatzaileak. Azkenik, azterketa diatopikoak egitean emaitzak mapetan proiektatu dira. Herrien barne-kohesioa ere aztertu da.

Sailkapen horiez gain, interesgarri iritzi diogu ezaugarrien azalpen-indarra aztertzeari Shannonen entropia-indizearen bidez. Eta lan honetan horixe da originala izan den analisisietako bat. Horretarako, probabilitateak eta entropia kalkulatu dira.

Doktoretza-tesi honetan datu berri asko jaso dira; izan ere, 6.720 datutik gorako corpusa osatu da. Jasotako datu horiek sailkatu dira adina, generoa eta herria aldagaiak (diastatikoa eta diatopikoa) kontuan hartuz. Hizkuntza SKDM gisa ulertuta, azpian datzan egituraketa geo-soziolinguistikoa azalera da metodo objektiboak erabilita (multzokatze hierarkikoa, KM, FCM).

Lan honetan planteatutako metodologian, erakutsi da sistema gehiago dela ezaugarri hutsen batuketara baino. Banan-banan ezaugarri bakar batzuk izan dira

estatistikoki esanguratsuak (batzuetan adina, generoa beste batzuetan, edota geografia), baina ezaugarri guztien arteko interakzio guztiak kontuan hartuta, orduan azaleratu da begi-bistan ez dagoena. Hemen planteatzen den prozedura hau aplikatu ezean, ezaugarrien batura hutsarekin eta azaleko forma hutsen konparazioarekin, atomizatuta agertzen dira ezaugarriak eta ondorioz ez dira benetako aldeak ikusten. Analisi honetan oinarrituta lortu da azpian datzan egitura azaleratzea eta agerian uztea.